

A LA MESA DEL SENADO

LUIS JESÚS URIBE-ETXEBARRIA APALATEGUI, Senador por Gipuzkoa y miembro del Grupo Parlamentario Vasco (EAJ-PNV) en el Senado, al amparo de lo establecido en el Artículo 170 del Reglamento de la Cámara, formula la siguiente INTERPELACIÓN ante el Pleno:

El siderúrgico es uno de los sectores más versátiles y fundamentales en la industria moderna. Su impacto económico es especialmente relevante en Europa, donde el sector siderúrgico desempeña un papel crucial en el desarrollo industrial, la estabilidad económica europea y la Autonomía Estratégica de la UE.

La industria siderúrgica proporciona la materia prima esencial para una amplia gama de sectores industriales, como la construcción, la automoción, la energía, la defensa y la maquinaria. Es un importante generador de empleo. Desde la producción del acero y los metales, hasta su procesamiento y fabricación de productos finales, se estima que emplea directa e indirectamente a millones de personas en toda la cadena de valor, con 310.000 empleos directos y otros 2'2 millones de empleos indirectos.

Asimismo, el sector no solo se enfoca en la producción de acero y metales, sino que también impulsa la innovación y el desarrollo tecnológico. La industria ha adoptado avances tecnológicos para mejorar la eficiencia, reducir el impacto ambiental y aumentar la calidad de sus productos.

La investigación y el desarrollo en el sector siderúrgico han dado lugar a nuevos procesos de producción, como la producción de acero con bajas emisiones de carbono y el desarrollo de aceros avanzados con propiedades superiores. Estas innovaciones mantienen a la industria del acero europea competitiva en el escenario global y generan oportunidades para la exportación de productos de alto valor añadido.

El sector siderúrgico elabora productos altamente comercializados en el ámbito internacional, y Europa es uno de los principales actores en este mercado. Los países europeos exportan una cantidad significativa de metales a nivel global, lo que contribuye a la balanza comercial y fortalece la posición económica de nuestro continente.

Finalmente, es de destacar que, a medida que Europa se enfrenta a nuevos desafíos y persigue la sostenibilidad, la industria del acero tiene la oportunidad de liderar la transformación hacia un futuro más verde y próspero. En consecuencia, debe seguir siendo un elemento vital para el crecimiento económico, social y verde y para el progreso industrial e innovador de Europa en los próximos años.

Sin embargo, como ha ocurrido a menudo a lo largo de su centenaria historia, la siderurgia atraviesa un momento delicado. Así, según datos de la OCDE, el exceso de capacidad mundial alcanzará los 721 millones de toneladas en 2027, una cifra que pone en jaque la supervivencia de la industria europea en este ámbito y que amenaza seriamente a sectores estratégicos conexos.

Pero, además del exceso de capacidad de producción mundial, resulta evidente que existe una competencia desleal por parte de terceros países que no cumplen con los estándares medioambientales y sociales de la Unión Europea y que el sector siderúrgico se enfrenta al reto de acometer importantes inversiones para modernizar y descarbonizar sus instalaciones de producción en Europa. Y a todo ello, se une la imposición por parte de la Administración Trump de un arancel del 50% para los productos metalúrgicos europeos,

Para hacer frente a toda esta situación, a lo largo de este año se están desarrollando diversas iniciativas.

Así, en marzo de este año, la Comisión Europea presentó su “Plan de acción para el acero y los metales” en el que se reconoce acertadamente el carácter estratégico de la industria siderúrgica europea, las amenazas a las que se enfrenta y los mecanismos disponibles para superar estos desafíos.

A finales de julio de este año también, once Estados miembro (entre ellos el español) elaboraron el “non paper” titulado “Nuevo marco de protección comercial para la industria siderúrgica europea” en el que proponen un nuevo régimen de protección comercial para la siderurgia europea, frente al exceso de capacidad de producción a nivel mundial y al actual marco multilateral de comercio.

Asimismo, el pasado 15 de septiembre, más de un centenar de eurodiputados dirigieron una carta a la Comisión Europea pidiendo medidas de protección para la industria siderúrgica europea y un nuevo marco de protección comercial, que pueda estar operativo desde el 1 de enero de 2026.

En este contexto, **se interpela al ministro de Economía, Comercio y Empresa sobre su posición acerca de las medidas e instrumentos comerciales de salvaguarda que deberían adoptarse a nivel comunitario para la defensa del sector siderúrgico europeo.**

INTERPELAZIOA

Siderurgikoa industria modernoko sektorerik moldakorrenetako eta funtsezkoenetako bat da. Bere eragin ekonomikoa bereziki garrantzitsua da Europan, siderurgia-sektoreak berebiziko garrantzia baitu industria-garapenean, Europako egonkortasun ekonomikoan eta EBko Autonomia Estrategikoan.

Industria siderurgikoak funtsezko lehengaia ematen du industria-sektore ugaritarako, hala nola eraikuntzarako, automobilgintzarako, energiarako, defentsarako eta makineriarako. Enplegu-sortzaile garrantzitsua da. Altzairuaren eta metalen ekoizpenetik hasi eta azken produktuak prozesatu eta fabrikatu arte, balio-kate osoan milioika pertsona zuzenean eta zeharka enplegatzen dituela zenbatesten da, zuzeneko 310.000 enplegurekin eta zeharkako 2'2 milioi enplegurekin.

Era berean, sektoreak altzairuaren eta metalen ekoizpenean zentratzeaz gain, berrikuntza eta garapen teknologikoa ere bultzatzen ditu. Industriak aurrerapen teknologikoak egin ditu eraginkortasuna hobetzeko, ingurumen-inpaktu murritzeko eta produktuen kalitatea handitzeko.

Siderurgia-sektoreko ikerketek eta garapenak ekoizpen-prozesu berriak ekarri dituzte, hala nola karbono-isuri txikiko altzairuaren ekoizpena eta propietate handiagoko altzairu aurreratuen garapena. Berrikuntza horiek Europako altzairuaren industria lehiakor mantentzen dute agertoki globalean, eta balio erantsi handiko produktuak esportatzeko aukerak sortzen dituzte.

Siderurgia-sektoreak nazioartean oso ondo merkaturatzen diren produktuak egiten ditu, eta Europa merkatu horretako eragile nagusietako bat da. Europako herrialdeek metalen kopuru esanguratsua esportatzen dute maila globalean, eta horrek merkataritza-balantzari laguntzen dio eta gure kontinentearren posizio ekonomikoa indartzen du.

Azkenik, nabarmentzekoa da, Europak erronka beriei aurre egin eta iraunkortasuna lortu nahi duen heinean, altzairuaren industriak aukera duela etorkizun berde eta oparoago baterako eraldaketa gidatzeko. Ondorioz, ezinbesteko elementua izaten jarraitu behar du datozen urteetan hazkunde ekonomiko, sozial eta berderako eta Europaren aurrerapen industrial eta berritzailerako.

Hala ere, bere ehun urtetik gorako historian zehar askotan gertatu den bezala, siderurgiak une delikatua bizi du. Hala, Ekonomia Lankidetza eta Garapenerako Erakundearen datuen arabera, munduko gehiegizko gaitasuna 721 milioi tonara iritsiko da 2027an, eta zifra horrek kolokan jartzen du Europako industriak eremu horretan duen biziraupena, eta mehatxu handia egiten die lotutako sektore estrategikoei.

Baina, mundu osoan ekoizteko gehiegizko ahalmenaz gain, agerikoa da Europar Batasuneko ingurumen- eta gizarte-estandarrak betetzen ez dituzten hirugarren herrialdeen arteko lehia desleiala dagoela, eta siderurgia-sektoreak Europaren ekoizpen-instalazioak modernizatzeko eta deskarbonizatzeko inbertsio garrantzitsuak egiteko erronkari aurre egin behar diola. Horrez gain, Trumpen administrazioak %50eko muga-zerga ezarri du Europako produktu metalurgikoetarako.

Egoera guzti honi aurre egiteko, hainbat ekimen garatzen ari dira aurten.

Horrela, aurtengo martxoan, Europako Batzordeak "Altzairua eta metalak lantzeko ekintza-plana" aurkeztu zuen. Plan horretan egoki aitortzen da Europako industria siderurgikoaren izaera estrategikoa, aurre egin beharreko mehatxuak eta erronka horiek gainditzeko eskura dauden mekanismoak.

Aurtengo uztailaren amaieran, halaber, hamaika estatu kidek (horien artean Espainiakoa) "Europako industria siderurgikorako merkataritza-babesaren esparru berria" izeneko "non paper"-a egin zuten. Bertan, Europako siderurgiarako merkataritza-babesaren araubide berri bat proposatu zuten, mundu mailako ekoizpen-ahalmen handiegiaren eta egungo merkataritza-esparru aldeanitzunaren aurrean.

Era berean, irailaren 15ean, ehun eurodiputatuk baino gehiagok gutun bat bidali zioten Europako Batzordeari, Europako industria siderurgikoa babesteko neurriak eta merkataritza babesteko esparru berri bat eskatuz, 2026ko urtarrilaren 1etik aurrera martxan egon daitekeena.

Testuinguru horretan, **Ekonomia, Merkataritza eta Empresa ministroari interpelatzen zaio Europako siderurgia-sektorea defendatzeko Europako Erkidego mailan hartu beharko liratekeen babes-neurri eta -tresnen inguruan duen jarrerari buruz.**

Palacio del Senado, a 24 de septiembre de 2025

A handwritten signature in blue ink.

Luis Jesús Uribe-Etxebarria Apalategui